

16/23

irizpena

EAEan nekazaritza politika erkidearen 2023-2027 plan estrategikoa (NPEPE) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzen duen Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2023ko abenduaren 4a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 16/23

I.- AURREKARIAK

2023ko azaroaren 8an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, "Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzen duen dekretu proiektuari" buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Xedapenaren xedea bikoitza da. Alde batetik, arauak ezartzea, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko. Plana Europako Batzordeak onartu zuen, 2022ko abuztuaren 31ko C (2022) 6017 Erabakiaren bidez. Bestetik, landa-eremuen katalogazioa eta parametrizazioa erregelamendu bidez garatzen da, Landa Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidal zitzaizaten eta dagokion Lan Batzordeari helaraz ziezaieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2023ko azaroaren 27an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen proiektu hau egin zen, Kontseiluaren abenduaren 4ko Osoko Bilkurari aurkezteko, eta aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak azalpenen zatia eta xedapenen zatia ditu: 87 artikulua, 6 kapitulutan banatuta; hiru xedapen gehigarri; xedapen iragankor bat; lau xedapen indargabetzaile; bi azken xedapen eta bi eranskin.

Azalpenen zatia

Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) azken erreforma 2021eko abenduan amaitu zen, hiru erregelamendu argitaratu zirenean. Erregelamenduok oinarriak ezartzen dituzte eta, eskuordetutako erregelamenduekin eta betearazpen-erregelamenduekin batera, NPEn aplikazioa arautzen dute 2023-2027an, betiere balizko luzapenei kalterik egin gabe.

- 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan (NPEn plan estrategikoak) estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituena, eta 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak indargabetzen dituena.
- 2021/2116 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.
- 2021/2117 (EB) Erregelamendua, erregelamendu hauek aldatzen dituena: 1308/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritzako produktuen merkatuen antolaketa erkidea sortzen duena; 1151/2012 (EB) Erregelamendua, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideei buruzkoa; 251/2014 (EB) Erregelamendua, mahastizaintzako eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoen definizio, deskribapen, aurkezpen, etiketatze eta babesari buruzkoa; eta 228/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritza sektorean EBko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurri espezifikoak ezartzen dituena.

NPE berriak, 2023tik 2027ra bitartean aplikatuko denak, aurreko NPEren funtsezko elementuak dauzka, baina **baldintza jakin batzuk betetzean oinarritutako politika izatetik, hiru helburu nagusirekin lotutako emaitza zehatz batzuk lortzera bideratutako politika izatera pasatuko da:**

- ✓ nekazaritza sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea, elikagaien segurtasuna bermatuko duena;
- ✓ ingurumenaren babesa indartzea eta babestea, biodibertsitatea eta klimaren aldeko ekintza barne, eta Batasuneko ingurumenaren eta klimaren gaineko helburuak lortzen laguntzea, tartean Parisko Itunaren arabera hartutako konpromisoak;
- ✓ eta landa-eremuetako sare sozioekonomikoa indartzea.

Helburu orokor horiek, era berean, **bederatzi helburu espezifikotan** banakatzen dira, jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarrituta, eta **zeharkako helburu komun** batekin osatuta: nekazaritza sektorea modernizatzea landa-eremuetan, ezagutzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

Era berean, aipatzen da 2023-2027 **NPEren berritasun nagusietako bat dela estatu kide guztiek NPEren Plan Estrategiko bakarra (NPEPE)** izan behar dutela; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak koordinatutako lan-prozesu baten ondoren, non autonomia erkidegoek parte hartu zuten, 2022ko abuztuaren 31n, Europako Batzordeak Espainiako NPEren Plan Estrategikoa onartu zuen, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

Espainiako NPEPE horretan jaso dira bai lehen zutabearen esparruan programatutako laguntzarako esku-hartzeak (zuzeneko eta sektoreko laguntzak, NBEF funtsak finantzatutakoak), Estatuan zuzenean aplikatuko direnak, bai bigarren zutabeko landa-garapenerako esku-hartzeak (LGENF funtsak eta beste batzuek finantzatuak), autonomia-erkidegoetan abiarazi eta garatzen direnak. EAEn kasuan, zuzeneko ordainketez eta NBEF funtseko esku-hartze sektorialez gainera, landa-garapenerako 18 esku-hartze programatu dira (LGENF) guztira, batzuk Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak eta beste batzuk foru-aldundien eskumenekoak.

Azalpenekin jarraituz, hauxe dio: **NPEren planteamendu berriaren arabera, plan estrategiko bakarra egon behar da**, eta bertan bildu behar dira NBEFren zuzeneko laguntzak eta esku-hartzeak, batetik, eta LGENFren konturako landa-garapenerako laguntzak, bestetik. Horregatik, **ekimena proposatzen duen sailak hausnarketa egin du eta erabaki du NPEren bi zutabeak uztartzen dituen dekretua egitea**, eta, horretarako, orain arte sakabanatuta egon den araudia (xedapen indargabetzaileetan zehazten dena) indargabetu behar da.

Bestalde, LGENF funtsaren kargurako landa-garapenerako laguntzen oinarria landa-eremuak garapeneraren arabera sailkatzea da. Ildo horretan, Landa Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikulua ezartzen duenez (2022ko uztailaren 15eko EHAA), landa-eremuak identifikatu behar dira, besteak beste, biztanleriarekin, nekazaritza jarduerarekin eta biztanleria-dentsitatearekin lotutako parametroetan oinarrituta. 3. idatz-zatian xedatzen da erregelamendu bidez garatu behar dela landa-eremuen katalogazioa eta parametrizazioa. Hori da, halaber, dekretu honen xedea: **landa-eremuen karakterizazioa**.

Xedapenen zatia.

I. kapituluaren (Xedapen orokorrak), esku-hartze guztiei eragiten dieten arau orokor erkideak jasotzen dira, dekretuaren xedeaz gain.

1. atalean, NPEPE ezartzeko beharrezkoak diren organoak definitzen eta sortzen dira, bai Europako arauditik, bai Estatuko arauditik eratorriak. 2. atalak Euskadin programatutako laguntzako esku-hartzeak Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotako babesarekin lotzen ditu. 3. atala esku-hartzeen finantzaketari eta kontuen likidazioari buruzkoa da. Finantzaketa NBEF eta LGENF funtsen kontura egingo da, eta, kasu batzuetan, finantzaketa osagarri nazionalera jotzeko aukera izango da. 4. atalak informazioaren eta publikotasunaren arloko betebeharrak ezartzen ditu. 5. atala iruzurrari eta interes-gatazkari buruzkoa da. Interes-gatazkak EBren aurrekontuari eragiten dioten irregulartasunak dira, eta Batasunaren aurrekontuaren kudeaketan esku hartzen dutenen eginkizunen egikaritze inpartzial eta objektiboa konprometituta geratzen denean gertatzen dira, familia arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomiko edo interes pertsonaleko edozein arrazoiengatik. 6. atalak kontroleko sistema eta zehapen-araubidea ezartzen ditu, eta berariaz aipatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Lege berria.

II. kapituluaren kudeaketa eta kontroleko sistema integratua (SIGC) sartutako NPEPEren esku-hartzeen kudeaketa eta kontrolari buruzkoa da. Europar Batasuneko estatu kideak arduratzen dira nekazariei beren lurraldean egiten zaizkien ordainketak administratzeaz eta kontrolatzeaz, "kudeaketa partekatua printzipioa" deritzonaren arabera. Ordainketak kudeatzeko sistemaren osagai nagusia kudeaketa eta kontrol sistema integratua da (SIGC), azaleraren edo animalien arabera laguntzen bidez finantzatutako eragiketak behar bezala gauzatzen direla bermatzen duena. Gainera, irregulartasun oro prebenitzen, aurkitzen eta ikertzen du, bidegabe ordaindutako zenbatekoak berreskuratzen ditu eta nekazariei laguntzak ematen dizkie eskaerak behar bezala aurkez ditzaten. SIGC sistema administrazio-karga murrizten duen eta kontrol eraginkorrak bermatzen dituen sistema bat da.

III. kapituluaren baldintza indartuen eta baldintza sozialen funtsezko elementuak ezartzen ditu. Baldintza multzo hori Nekazaritza Politika Bateratuak gizarteak gure natur eta ekoizpen baliabideei eusteko duen sentsibilitateari ematen dion erantzuna da. Nekazaritza jarduerak eragin onuragarria eta erabakigarria izan dezake gure eskualdeetako habitatak, flora, fauna eta paisaia bereizgarriak mantentzeko. Ongarriak eta produktu fitosanitarioak behar bezala erabiltzeak eta nekazaritza jardun egokiak aukera ematen dute kalitatezko produktuak lortzeko, ustiatzeko baliabideetan egiten dituzten inbertsioetan aurreratzeko, eta, bereziki, kalteak saihesteko gizarte osoarentzat, lursailak eta ura bezalako baliabide garrantzitsu eta urriak hondatzen direlako.

Ganadua egoera onean gobernatzea bermea da kontsumitzaileentzat osasungarritasunaren eta ongizatearen aldetik, baita elikagaien kate osoan nekazaritzako zein abeltzaintzako produktuen trazabilitatea ere. NPEEn ezarritako laguntzek funtzio horiek ordaintzen zituzten. Nekazarien eta abeltzainen errentak konpentsatzen dituzte, gure natura-ondareari eustea, etorkizuneko belaunaldiei eskualdatzea eta elikagai seguruak kontsumitzea ahalbidetuko dituzten ekoizpen moduak praktikatzegatik. Kapitulu honetako 1., 2. eta 3. ataletan, aplikatzekoak diren arauak jasotzen dira, baita ez-betetzeen ondoriozko zigorrak ere.

IV. eta V. kapituluak NBEFren konturako esku-hartzeak jasotzen dituzte, eta zuzeneko ordainketak eta esku-hartze sektorialak bereizten dituzte: frutak eta barazkiak, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea -inbertsioak-, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea -sustapena-, mahastien

berregituraketa eta birmoldaketa, uzta berdea eta erlezaintza. Horietako bakoitzean, aplikatu beharreko araudia zehazten da, bai eta laguntzen deialdia, kudeaketa eta ebazpena egiteko ardura duen organoa ere, Lurralde Historikoen Legearen ondoriozko eskumen-banaketaren arabera.

VI. kapituluak LGENFren konturako esku-hartzeak jasotzen ditu, hiru ataletan banatuta. 1. atala LGENFk eta foru aldundiek batera finantzaturako esku-hartzeen kudeaketari buruzkoa da. 2. atala LGENFk eta EAeko Administrazioak batera finantzaturako esku-hartzeei buruzkoa da. 3. atalean *erregelamendu bidez garatzen da landa-eremuen karakterizazioa*, LGENF funtsaren konturako laguntza batzuen oinarri izateko balio duena. 3. atal horretako artikuluetan, landa-eremuak (85. artikulua), kontuan hartutako irizpideak (86. artikulua) eta ondoriozko kalteberatasun-mailak (86. artikulua) identifikatzen dira.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRA	1. atala. 2023-2027 NPEPEren xedea eta gobernantza-egiturak EAEn	1. artikulua.- Dekretuaren xedea. 2. artikulua.- Gobernantza-organoak. 3. artikulua.- EAeko kudeaketa-agintaritza erregionala. 4. artikulua.- Kontu-hartzaitzako organo kudeatzaileak. 5. artikulua.- EAeko kudeaketa-agintaritza erregionalaren koordinazio batzordea. 6. artikulua.- Erakunde ordaintzailearen koordinazio batzordea. 7. artikulua.- NPEPEren Jarraipen Batzorde Erregionala EAEn.
	2. atala. EAEn programaturako laguntzarako esku-hartzeak	8. artikulua.- Esku-hartzeak. 9. artikulua.- Laguntzen deialdiak, eskabideak eta ebazpenak. 10. artikulua.- Onuradun izateko bete beharreko baldintzak. 11. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta laguntzen zenbatekoa. 12. artikulua.- Onuradunen betebeharrak. 13. artikulua.- NBEFren konturako esku-hartzeak. 14. artikulua.- LGENFren eta Estatuko finantzaketa osagarriaren kontura modu bateratuan finantzaturako esku-hartzeak. 15. artikulua.- Administrazioarekiko harremana. 16. artikulua.- Datuen eta erregistroen integrazioa eta elkarreragingarritasuna.
	3. atala. Esku-hartzeak finantzatzea eta kontuak likidatzea	17. artikulua.- NBEFren konturako esku-hartzeen finantzaketa. 18. artikulua.- LGENFren konturako esku-hartzeen finantzaketa. 19. artikulua.- Finantzaketa bikoitzaren debekua eta NBEF eta LGENF funtsen konturako laguntzen bateragarritasuna. 20. artikulua.- Finantza-likidazioa egiteko prozedura. 21. artikulua.- Errendimenduaren likidazioa egiteko prozedura. 22. artikulua.- Bi urtean behin errendimendua aztertzea.
	4. atala. Informazioa eta publikotasuna	23. artikulua.- Informazioaren, publikotasunaren eta ikusgarritasunaren inguruko betebeharrak. 24. artikulua.- Administrazioaren betebeharrak. 25. artikulua.- Onuradunen betebeharrak. 26. artikulua.- Europar Batasunaren ikurraren erabilera.
	5. atala. Iruzurra eta interes-gatazka	27. artikulua.- Iruzzurren kontrako politika. 28. artikulua.- Iruzzurren kontrako neurriak esku-hartzeen kudeaketan. 29. artikulua.- Interes-gatazka. 30. artikulua.- Interes-gatazkari aurre egiteko estrategiak.

	6. atala. Bidegabeko ordainketak kontrolatzeko eta berreskuratzeko sistema eta zehapen-araubidea	31. artikulua.- Bidegabeko ordainketak kontrolatzeko eta berreskuratzeko sistema. 32. artikulua.- Zehapen-araubidea. 33. artikulua.- Zehatzeko ahala. 34. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion esku-hartzeetan zehapenak ezartzeko prozedura.
II. KAPITULUA KUDEAKETA KONTROLEKO INTEGRATUAN SARTUTAKO ESKU-HARTZEAK KUDEATZEA KONTROLATZEA		35. artikulua.- SIGC sisteman sartutako NPEPEren esku-hartzeak. 36. artikulua.- Sistemaren elementuak.
	1. atala. Laguntza eskatzeko sistema (eskaera bakarra)	37. artikulua.- Laguntzak eskatzeko sistema.
	2. atala. Eskubideak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema	38. artikulua.- Eskubideen datu-basea.
	3. atala. Nekazaritzako lursailak identifikatzeko informazio geografikoko sistema (SIGPAC)	39. artikulua.- Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema erabiltzea. 40. artikulua.- Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema: mota eta izaera juridikoa. 41. artikulua. Nekazaritza Politika Erkideko laguntzen eta beste dirulaguntza batzuen onuradunen erantzukizuna. 42. artikulua.- Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema aldatzeko eskaerak.
	4. atala. Azalerak monitorizatzeko sistema	43. artikulua.- Definizioa eta aplikazio-eremua. 44. artikulua.- Nekazariekin komunikatzeko sistema. 45. artikulua.- Laguntza-eskabideak moldatzea. 46. artikulua.- SIGPAC eguneratzeko kontuan hartzea.
	5. atala. Kontrolatzeko eta zehapenak ezartzeko sistemak	47. artikulua.- Kontrolatzeko eta zehapenak ezartzeko sistemak, SIGC sistemaren esparruan.
	6. atala. Abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema (SITRAN)	48. artikulua.- Abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema.
	7. atala. Nekazaritzako ustategien informazio-sistema (SIEX)	49. artikulua.- Nekazaritza ustategien informazio sistema.
III. KAPITULUA BALDINTZA INDARRETA BALDINTZA SOZIALAK		50. artikulua.- Kontsiderazio orokorrak.
	1. atala. Baldintza indartuak	51. artikulua.- Kontrol-agintaritza eskudunak. 52. artikulua.- Kontrol-sistema. 53. artikulua.- Kontrol motak. 54. artikulua.- Administrazio-kontrolak. 55. artikulua.- Tokian tokiko kontrolak.
	2. atala. Baldintza sozialak	56. artikulua.- Baldintza sozialak.

	3. atala. Zigorrek ezartzeko sistemak	57. artikulua.- Zigorrek ezartzeko sistemak.
IV. KAPITULUA NBEF-REN KONTU ESKU-HARTZEAK. ZUZENKO ORDAINK		58. artikulua.- Laguntzarako esku-hartzeak: zuzeneko ordainketak. 59. artikulua.- Onuradunak. 60. artikulua.- Deialdiak eta kudeaketa. 61. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
V. KAPITULUA NBEF-REN KONTU ESKU-HARTZEAK. ESKU-HARTZE SEKTORIALAK	1. atala. Fruten eta barazkien sektorea	62. artikulua.- Aintzatespena. 63. artikulua.- Programa operatiboetarako laguntzak kudeatzea. 64. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
	2. atala. Mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartzeak mahastien berregituraketa eta birmoldaketa: uzta berdea	65. artikulua.- Deialdia eta kudeaketa. 66. artikulua.- Onuradunak. 67. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
	3. atala. Mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartzeak: inbertsioak	68. artikulua.- Erreferentziazko araudia eta horren aplikazioa. 69. artikulua.- Onuradun izateko bete beharreko baldintzak. 70. artikulua.- Deialdiak eta eskabideak. 71. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
	4. atala. Mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartzeak, ardoa sustatzea beste herrialde batzuetan	72. artikulua.- Erreferentziazko araudia eta horren aplikazioa. 73. artikulua.- Onuradun izateko bete beharreko baldintzak. 74. artikulua.- Deialdiak eta eskabideak. 75. artikulua.- Ebazpena.
	5. atala. Erlezaintzako esku-hartzea	76. artikulua.- Deialdiak eta kudeaketa. 77. artikulua.- Onuradunak. 78. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
VI. KAPITULUA. LEREN KONTURAKO HARTZEAK	1. atala. LGENFk eta foru-aldundiak modu bateratuan finantzatutako esku-hartzeen kudeaketa	79. artikulua.- Kudeaketa eta deialdiak. 80. artikulua.- Onuradunak. 81. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
	2. atala. LGENFk eta EAEko Administrazioak modu bateratuan finantzatutako esku-hartzeen kudeaketa	82. artikulua.- Kudeaketa eta deialdiak. 83. artikulua.- Onuradunak. 84. artikulua.- Ebazpena eta ordainketa.
	3. atala. Landa-eremuen karakterizazioa	85. artikulua.- Landa-eremuak identifikatzeko parametroak. 86. artikulua.- Landa-eremuak kategorizatzeak irizpideak eta kalteberatasun-mailak. 87. artikulua.- Karakterizazioa aldatzea.
XEDAPENAK	GEHIGARRIAK	LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. - Arau-aipamenak. - BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. -

		HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. - Esku-hartze berrien publikotasuna. -
	IRAGANKORRAK	XEDAPEN IRAGANKORRA. - Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020: luzapena.
	INDARGABETZAILEAK	LEHENENGO XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Arauak indargabetzea. BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Arauak indargabetzea. HIRUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Arauak indargabetzea. LAUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA. - Arauak indargabetzea.
	AZKENEKOAK	AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. - Garatzeko eta moldatzeko ahalmena. AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. - Indarrean sartzea.
ERANSKINAK	I. ERANSKINA	A.- Nekazaritza Politika Erkideari buruzko Batasuneko araudia B.- Nekazaritza Politika Erkideari buruzko Estatuko oinarritzko araudia
	II. ERANSKINA	Europar Batasunaren ikurra

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gure irizpenerako aurkeztu diguten dekretu-proiektuaren xedea da, esan bezala, alde batetik, Espainiako 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NPEPE), Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartua, EAEn ezartzeko arauak finkatzea, eta, bestetik, landa-eremuen katalogazioa eta parametrizazioa erregelamendu bidez garatzea, Landa Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2023-2027 NPEren berritasun nagusietako bat da estatu kide bakoitzeko plan estrategiko bakar baten inguruan egituratzen dela eta nekazaritza-errenta babesten jarraituko duela, berrikuntzaren, digitalizazioaren eta ezagutza-trukearen bidez sektorearen modernizazioa bultzatuz, Itun Berdearen erronkekin bat etorritik.

2023-2027 NPEren Plan Estrategikoak erantzuna eman nahi die nekazaritzako elikagaien eta zuraren balio-kateen eta landa-eremuek ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik dituzten premiei, lehen zutabeko esku-hartzeen bidez (laguntza zuzenak eta sektorialak, NBEF funtsak finantzatuak, eta zuzenean aplikatzekoak Estatuan) eta bigarren zutabearen esku-hartzeen bidez (LGENF funtsak kofinantzatutako landa-garapenerako esku-hartzeak, autonomia-erkidegoan inplementatzen eta garatzen direnak, kasu bakoitzean ezarritako eskualdeen berezitasunekin eta autonomia-erkidego bakoitzak bere lurralderako programatutako esku-hartzeen eta aurrekontuen arabera).

Euskadiren kasuan, zuzeneko ordainketetako esku-hartzeek eta NBEF funtsaren esku-hartze sektorialeaz gain, landa-garapenerako 18 esku-hartze programatu dira (LGENF), horietako batzuk Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak eta beste batzuk foru aldundien eskumenekoak.

[Espainiako NPEren 2023-2027 Plan Estrategikoa](#) aztertu ondoren, eta garaiz egonik, proposatzen dugu nekazaritza-ingurumeneko neurri berri bat sartzea PV6501.2-Nekazaritzako azaleretako nekazaritzako elikagaien konpromisoak izeneko esku-hartze fitxan. Laborantza jasangarrietarako konpromisoak (3.174. orrialdea), "**Ekonomia zirkularra, ustiategi txiki jasangarriak**" izenburupean; proposamenean oinarrituta, dekretu-proiektuaren 14.2 artikuluan konpromiso berria gehitzeko eskatzen dugu.

Sartzeko proposamen hori azaltzeko arrazoia hau da: baditugu pertsona batzuk, nagusiki nekazariak

izanik, praktikan lehen zutabetik kanpo geratu direnak berriz ere dimentsioaren gaineko arrazoiengatik (ordainketa hektareako izaten jarraitzen du, eta birbanaketa-ordainketak ez ditu egoera horiek konponduko), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 Erregelamenduaren 70. artikulua 4. eta 8. idatz-zatien arabera, sartzeko aukera dago. Izan ere, behar bezala justifikatutako kasuetan, estatu kideek oroharreko edo ordainketa bakarreko laguntzak eman ditzakete unitate bakoitzeko, eta ordainketok urtero emango dira.

Izan ere, aukera hori baliatuta, eta NPEren 2023-2027 aldi berri honetarako, Galizian, adibidez, "**Ekonomia zirkularra, ustiategi txiki jasangarriak**" nekazaritza eta ingurumeneko neurri bat jarri da abian, irailaren 4ko 125/2014 Dekretuari lotua. Horren bidez Galizian lehen mailako produktuak ustiategietatik azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea arautzen da. Espainiako NPEren Plan Estrategikoan GAL6501.2-Nekazaritzako azaleretako nekazaritzako elikagaien konpromisoak izeneko esku-hartze fitxan jasotzen den nekazaritza eta ingurumeneko neurria. Laborantza jasangarrirako konpromisoak (3.172 orrialdea).

Beste adibide bat Frantziakoa da. Han, hektarea bakoitzeko ordainketa-sistematik kanpo geratzen diren baina lurralderako garrantzitsuak diren abeletxe oso txikiak daudela jakinik, bi laguntza ezarri dira NPEren 2023-2027 Plan Estrategikoaren lehen zutabearen, egoera hori konpentsatzen saiatzeko. Laguntzotan, gutxienez, oroharreko ordainketak proposatzen dituzte lehen zutabearen, edo hektareako kopuru bat, ordainketa-eskualdeen hektarea bakoitzeko kopuruekin zerikusirik ez duena hain zuzen ere.

Abeletxe mota horrek duen garrantzi kualitatiboa kontuan hartuta, proposatzen dugu, lehentasunez, bigarren zutabearen nekazaritza eta ingurumeneko laguntza bat egotea, urteko oroharreko prezioan edo hektareako ordaintzea ahalbidetuko diena abeletxeei (baratzeak, frutak, estentsiboko animalia txikiak dituztenak). Izan ere, askotan zirkuitu laburretan merkaturatzen dituzte produktuak eta ekoizpen dibertsifikatuak dituzte. Hala, haiek "ere" NPEren parte direla esan ahal izango dute.

Bestalde, zuzeneko salmenta horren bidez, nekazaritzako elikagaien katea jasangarriagoa izaten laguntzen da, batez ere honako arrazoi hauengatik:

- Batez ere sasoiko elikagaiak dira, **landareen ziklo naturalak errespetatzen dituztenak eta, hala, ekosistema jasangarriagoak sortzen dituztenak.**
- Hurbileko produktuek **tokiko enplegua eta landa-garapena dinamizatzen dituzte**, kalitatezko enpleguak sortuta eta, hala, belaunaldien arteko erreleboa eta familia-ustiategi txikiak sustatuta.
- Hurbileko elikagaien kontsumoak balioa ematen die bertako elikagaiei, **produktuen jatorriari buruzko kontzientzia soziala sortzen duelako.**
- **Energia gutxiago erabiltzen da produktuak biltegitzeko**, askoz ere denbora gutxiago igarotzen delako uzta biltzen denetik kontsumitzen den arte.
- Hurbileko produktuek distantzia txikiagoa dute, eta, beraz, **gutxiago kutsadura txikiagoa sortzen da garraiatzean.**
- Elikagaien banaketan bitartekariak murrizteak elikagaien galerak eta **alferrik galtzea murrizten lagun dezake.**

Nekazaritza-ingurumeneko neurri hori onartzeko baldintzak hauexek izango lirateke:

- Indarrean dagoen araudiaren arabera, nahitaezko erregistroetan inskribatuta egotea.
 - a) Animalia jatorriko lehen mailako produktua bada, Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorrean (REGA).
 - b) Landare jatorriko lehen mailako produktua bada, Nekazaritza Produkzioaren Erregistro Orokorrean (REGPEA).
- Gutxienez Hurbileko Salmentari buruzko Dekretuan ezartzen diren ekoizpen guztiak onartzen dira, (eztia, arrautzak, barazkiak, fruta, etab.). Dekretu hori izapidetzeko fasean dago gaur egun.
- Ustiategiak gutxienez 0,5 NLU (nekazaritzako lan-unitatea) sortu behar ditu edo Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar du.
- Ustiategia 0,5 ha-tik 3,00 ha-ra bitartekoa izango du barazkiak ekoizteko (horientzat laborantzak lurrian izan behar du), edo mistoa, 0,5 ha-tik 10 ha-ra bitartekoa.

Barazkiak eta frutak ekoizten dituzten lehen mailako produktuak zuzenean saltzen dituzten pertsonak oso ezaugarri desberdinak dituzten proiektuak dituzte, eta euren egoera espezifikoetara egokituta daude, ekoizpenean zein merkaturatzean. Oso zaila da ereduak proiektua aurkitzea, horien aldakortasuna dela eta. Askotariko proiektuetan lan egiten dute, funtzio anitzetan eta aniztasun handiarekin.

Laborantza-barrietate handiagoa izan behar dute beste proiektuek baino. Izan ere, euren ekoizpenak zuzenean eskaintzen dituztenez, eskaintza askotarikoagoa izan behar da. Horrek esan nahi du labore asko izan behar direla aldi berean. Oro har, baratzean eta fruta-arboletan egiten da lan, beste ekoizpen mota batzuk edukitzeaz gain (etxeke hegaztiak, ezitia, transformazioa, ardiak...).

Lan egiteko modu horrek proiektuen tipologia markatzen du, ekoizpen ugari lantzen dituzte denboraldi bakoitzean, txandakatze iraunkorrak eskatzen dituztenak, baita NAEren zati batzuk lugorrian uztea ere. Lantzen den azalera handiagoa da kanpaina bakoitzean landatutako azalera baino, txandakatzeengatik eta lurrari ematen zaizkion atsedendiengatik.

Dimentsio bat markatzerakoan, halako proiektuetarako aukerarik onena Frantziako eredu dela uste dugu, 0,5 eta 3 hektarea arteko dimentsioak baititu horrelako proiektu txikiatarako.

Konpromisoei dagokienez, hauexek izan beharko lituzkete:

1. Hurbileko Salmentaren (HS) bidez merkaturatzea, hain zuzen merkaturatzea bi modalitate hauetako baten bidez egiten denean kontuan hartuta:
 - Zuzeneko Salmenta (ZS): ekoizleak edo nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizle-elkarteek azken kontsumitzaileari zuzenean egindako salmenta da, bitartekaririk gabe:
 - ✓ Ustiategi ekoizlean.
 - ✓ Tokian tokiko azoka eta merkatuetan, betiere salmenta ustiategiaren titularrek egiten badute.
 - ✓ Kontsumitzaileen etxean.

- ✓ Kontsumo-taldeei egindakoa eta telefono edo salmenta telematiko bidez egindakoa, bitartekaririk gabe.
 - Merkaturatze-zirkuitu laburreko salmenta (MLS): bitartekari batekin egiten da, gehienez ere (txikizkako establezimendua, nekazaritza-turismoa, jantoki kolektiboa edo ostalaritza-establezimendua), produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean hornitzen dizkiona.
2. Laboreen hondakinen konpostajea nekazaritzako ekoizpenen kasuan.
 3. Laboreen hondakinak erretzeko debekua, salbu eta izurriteek edo gaixotasunek eragindako suntsiketa beharrezkoa denean. Izurriteen edo gaixotasunen erasoen kasuan, administrazioko zerbitzu teknikoek laboreen hondarrak erretzea gomendatzen dutenean, horiek zabaltzea edo irautea saihesteko, erretzeko baimena eman beharra dago.
 4. Herbizidak erabiltzeko debekua.
 5. Ustiapen-koadernoak aurkeztea.
 6. Merkatuetako salmenten, finkako in situ salmenten edo txikizkako establezimenduei egindako salmenten urteko erregistroa aurkeztea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

7. artikulua. NPEPEren Jarraipen Batzorde Erregionala EAEn.

2. puntuan honako hau aipatzen da: "*Batzordearen osaerak ordezkariak orekatua izan beharko du honako hauen artean:*

- a) *ingurumenaren eta klimaren arloko eskumena duten agintaritza publikoak;*
- b) *solaskide ekonomiko eta sozialak, nekazaritza sektorearen ordezkariak barne;*
- c) *sozietate zibila ordezkatzeko duten erakundeak eta, hala dagokionean, gizarte inklusioa, oinarrizko eskubideak, genero-berdintasuna eta bereizkeriarik eza sustatzeko ardura duten erakundeak".*

c) idatz-zatian kontsumitzaileen erakundeak sartzea proposatzen da, eta honela geratuko da testua:

c) *sozietate zibila ordezkatzeko duten erakundeak, eta, hala dagokionean, gizarteratzea, oinarrizko eskubideak, genero-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta **kontsumitzaileen defentsa** sustatzeaz arduratzen diren erakundeak.*

14. artikulua.- LGENFren eta Estatuko finantzaketa osagarriaren kontura modu bateratuan finantzatutako esku-hartzeak.

- 2. puntuan aipatzen denez, "*foru-aldundiek honako esku-hartze hauek garatu eta betearazi behar dituzte:*
 - *Nekazaritza-ingurumenaren arloko konpromisoak: Ekoizpen integratua.*
 - *Nekazaritza-ingurumenaren arloko konpromisoak: Laborantza jasangarriak.*

- *Nekazaritza-ingurumenaren arloko konpromisoak: Larreen sustapen/kudeaketa jasangarria.*
- *...".*

Ohar orokorretan adierazitakoaren ildotik, garaiz gauden neurrian, beste konpromiso bat sartzea proposatzen dugu, bai epigrafe berri baten barruan, bai laborantza jasangarrien barruan, hitzez hauxe dioena: "**Ekonomia zirkularra, ustiategi txiki jasangarriak**".

- 3. puntuan aipatzen denez, "*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek honako esku-hartze hauek garatu eta betearazi behar ditu:*
 - *Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edota garatzeko inbertsioak egitea.*
 - *Basogintzako ekoizpenerako inbertsioak.*
 - *Landa-guneetako oinarritzko zerbitzuetako inbertsioak, ekoizpenekoak ez direnak.*
 - *...".*

Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta/edo garatzeko inbertsioei dagokienez, kontuan hartu beharko litzateke ziurtagiri ekologikoa duten nekazaritzako elikagaien merkaturatzea merkatura bideratzea (EBren abeletxetik mahaira deritzon estrategia).

28. artikulua. Iruzurraren aurkako neurriak esku-hartzeen kudeaketan

3.b puntuan honako hau aipatzen da: "*Iruzurraren detekzioari dagokionez, herritarrek salaketak egiteko kanala edukiko dute eta, NPEren funtsen erabileran iruzurra gertatu delako susmorik izanez gero, haren bidez jakinarazi ahal izango dute. Komunikazio-kanal hori konfidentziala (anonimoa), eraginkorra eta segurua izango da, eta salatzaileen datu pertsonalak babestuta egongo dira beti*".

Gure ustez beharrezkoa da argitzea aipaturiko *salaketak egiteko kanala* dagoeneko sortutakoa den (2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko urriaren 23koa, Batasunaren Zuzenbidearen arau-hausteei eta etorkizuneko Euskadiko Gardentasun Legeari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa) edo salaketak egiteko kanal berria den iruzurrerako soilik, arauan arautzen denari dagokionez. Banakako kanalak ugaritzeagatik aurrekari txarra ezarriko lukeen arren, uste dugu horrek Erkidegoaren eskakizuna urratzea ekar lezakeela; bateratu nahi ditu, ordea.

34. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri dagozkion esku-hartzeetan zehapenak ezartzeko prozedura

2. puntuan aipatzen denez, "*Zehapen-prozedura ebazteko epea urtebetekoa izango da gehienez. Epe hori eten eta luzatu ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz. Prozedura ebazteko epean berriazko ebazpenik jakinarazten ez bada, prozedura iraungita geratuko da*".

Harrigarria egiten zaigu, gutxienez, Administrazioaren ekintzarik ezagatik, ebazteko epea ebazpenik eman gabe igarotzen denean, jokabide bat zehatu gabe geratzea, jarduketa horren ondorioz gabe.

Azken Xedapenetako Lehenengoa. Garatzeko eta moldatzeko ahalmena.

Nekazaritza politika erkidearen arloan eskumena duen saileko titularrari dekretu honetan aldaketa teknikoak egiteko baimena eman dakiokela ulertuta, egia esan, xedapena idatzita dagoen bezala, Europako araudia aldatzearen ondorioz funtsezko baldintzak aldatzeko ahalmena emango lioke, eta hori, gure ustez, gehiegizkoa litzateke.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da "*Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzen duen dekretu-proiektua*" izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako oharrekin.

Bilbon, 2023ko abenduaren 4an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria